

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fernantxo Intxaurrendieta Aizpurua
Lezo, Gipuzkoa
(1947)

Aurkibidea



Biografia



Kale Nagusian jaioa, Atzeko Aten. Ama Altzakoa zuen (haren aita Altzako medikua zen) eta aita, berriz, Lezokoa. Arotza zen lanbidez, aitona bezalaxe. Amona (aitaren ama) Agustina Lizarazu andereñoa izan zen (Lezoko kale batek haren izena dauka). Sei senidetan bigarrena izan zen Fernantxo. Herri eskolan ikasi zuen, eta ondoren Donostian ere aritu zen ikasten aldi batez, fraideekin. Ogibide bat ikastea erabaki zuen: harakin ibili zen Erreterian eta Donostian, eta harategia ireki zuen Lezon. Gero, harategia saldu eta Uztarri tabernajatetxea ireki zuen. Hura saldu eta Sahatsa taberna ipini zuen martxan. Azken urteetan Urkabe jaki enpresan dihardu lanean. Fernantxo hainbat saltsaren perexila da, eta baratza eta artaldea ere izan ditu. Kaletarra izan arren, Lezoko baserritar elkarte sortu zuenetako bat da, Ixkulin elkarteko kide eta herriko hainbat festa eta ekintzaren antolatzailea: erraldoiak, idi demak eta abere erakusketa, besteak beste. Lezoko erraldoietako bat berak eramaten du.

Zintak

LEZ-088

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Lizeaga, Irati
- **Data:** 2018-01-15
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

LEZ-089

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Lizeaga, Irati
- **Data**: 2018-01-15
- **Iraupena**: 85 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Garmendia, Mirari

Pasarteak

1. Fernantxoren aurkezpena

- **Erref**: LEZ-088/002
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:00:05. **Bukatu**: 00:02:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aurkezpena: Fernantxo deitu izan diote beti, osaba Fernando zelako. Kale Nagusiko "atzeko ate"-n jaioa. Umetan kaira joaten ziren; "puntala" deitzen zioten. Santa Egunean jaioa.

2. Amaren parteko familiaren kontuak

- **Erref**: LEZ-088/004
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:02:54. **Bukatu**: 00:05:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Lezokoa zuen eta ama Altzakoa. Aman partetik aitona Zubietakoa zen, Aizpurua baserrikoa. Donostia erre zutenean hantxe bildu ziren, Donostia berreraikitzeko. Aitona medikua zen, eta Altzara joan zen bizitzera.

3. Agustina Lizarazu amonari buruz I

- **Erref**: LEZ-088/005
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:05:11. **Bukatu**: 00:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ez zuen aitona medikua ezagutu, amona bat bai: aitaren ama. Kale bat dauka Lezon: Agustina Lizarazu. Gazte alargundu zen; ume txikiekin geratu zen. Amona zergatik zen ezaguna: andereñoa izan zen Lezon; ume txikiei euskaraz erakusten zien, doan.

4. Agustina Lizarazu amonari buruz II

- **Erref:** LEZ-088/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Candida Salaberria izaten zuen Agustina amonak laguntzen. Titulurik gabea baina bizia zen Agustina. Haren ama Urnietakoa zen, eta Lezora ezkondu zen. Anaia maisua zuen.

5. Aita arotza zen

- **Erref:** LEZ-088/007
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:15:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Anastasio arotza zen; etxe azpian zeukan tailerra. Gerar sasoian kartzelan egon zene, Puerto Santa Marian; bueltan, etxea berritu zuen. Etxegintzan ere aritu zen, osabarekin. Aitona ere arotza zen, eta txistularia. San Pedrora joaten zen ikastera. Arrantzan ere ibili zen.

6. Aitaren kartzelaldiko kontuak

- **Erref:** LEZ-088/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:15:17. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita nazionalista zen, eta Sarara joan zen ihesi. Ondoren Cadizen egon zen kartzelan, eta han kaiola bat egin zuen beste preso batekin. Ezkondu aurretik izan zen hori. Patxi anaia aipatzen du, musika irakaslea.

7. Aitona Leandro medikua

- **Erref:** LEZ-088/010
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Leandro Aizpurua zuen aitona, Altzako medikua. Zaldiz ibiltzen zen. Argazki batean bizarrarekin azaltzen da. Amari ez zitzaien bizarra gustatzen, baina Fernantxok ere beti izan du. Amarekin oso ondo konpontzen zen Fernantxo; jale ona zen, eta Xofiaren dendatik platano bikoitza ekartzen zion amak. Amak hika egiteko esaten zion.</p>

8. Euskararen egoera garai batean

- **Erref:** LEZ-088/011
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika hitz egiteko ohitura dute. Bere gazte garaitik hona euskara asko aldatu dela dio. Eskolan gaztelaniaz ikasi zuten. Banderak igo eta "Cara al sol" kantatu behar izaten zuten, egunero. Flechas y pelayos. Kale Nagusian guardia zibil ezkongabeak bizi ziren (eta koartelean ezkonduak), eta kalean topo egiten zutenean ezin zuten euskaraz egin. Soldaduskan ere ezin, noski. Azpeitiko batzuekin elkartu zen han, eta isilka bertsotan ere aritzen ziren (Anjel Larrañaga musikaria).</p>

9. Soldaduska garaiko kontuak I

- **Erref:** LEZ-088/012
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:29:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldaduskan zegoela, gurasoen zilarrezko ezteietara joateko baimena eskatu zueneko kontatzen du. Txiki eta Otaegi hil zituzten garaia zen. Txofer ibili zen, eta Iruñera bidali zuten. Handik joan zen Donostiara. Teniente galiziar bati deitu zion, baimena luzatzeko eskatzeko, eta baimena eman zion. Beste teniente batek, ordea, errieta egin zion gero.

10. Soldaduska garaiko kontuak II

- **Erref:** LEZ-088/013

- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:33:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldaduskako beste anekdota bat kontatzen du. Txofer moduan zebilen eta sukaldariarentzat enkarguak egiten zituen. Lezoko teniente koronel bat ezagutu zuen Iruñean. Soldaduek ikara ziotela dio, baina bera begi onez hartu zuela, lezoarra izaki. Bazkaltzera ere gonbidatu zuen, baina ez zen joan.

11. Kaian igerian eta anguletan

- **Erref:** LEZ-088/015
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:37:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

"Puntala" deitzen zioten kaiko bainu-lekuari. Zerrategi bat eta pirata lantegia zeuden bertan. Pirata oso toxikoa zen. Zerrategiko moilan ikasten zuten igerian. Anguletan ere ibiltzen ziren kaian; zerrategiko guarda lagun baten aita zen, eta hark lekua hartzen zien anguletarako. Argi gutxi komeni da angulak harrapatzeko, eta hark farola itzaltzen zuen. Kandeladun farolarekin eta karburozkoarekin ibiltzen ziren. Karburoa nondik lortzen zuten eta farola haiek nolakoak ziren azaltzen du.

12. Anguletan nola egiten zuten

- **Erref:** LEZ-088/016
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Anguletan nola egiten zuten azaltzen du. Abesti bat kantatzen du: "Entre angulitas". Zikinkeria asko izaten zen uretan. Anguletarako beharrezko tresnak.

13. Aitak 20 kilo angula harrapatu, ezkontza egunean

- **Erref:** LEZ-088/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Aitak kontatutako gertaera bat kontatzen du. Ezkondu zen egunean, iluntzean, lehengusu batek esan zion "angula jotzen" ari zela; hogeiki kilo baino gehiago harrapatu ei zituzten. Oso merke zeuden orduan; txerriei ere ematen zieten batzuek. Etxerako hartzen zuten beraiek, ez saltzeko.

14. Txitxare bila eta txirletan

- **Erref:** LEZ-088/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:42:17. **Bukatu:** 00:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:

Kaian angulez aparte karramarroak ere bazeuden. Enborrak bukatzen ziren tokian arrantzarako txitxare bila ibiltzen zen jendea; txirlak eta leituak ere izaten ziren. Papelera jarri zutenean hondatu zen hori.

15. Zerrategiko enborren azalaren bila

- **Erref:** LEZ-088/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Zerrategiko enborren azal bila joaten zen jendea, etxerako su egurra izateko. Jaizkibelera ere joaten ziren "txotxa bila", aizkora txiki batekin. Saldu ere egiten zuten batzuek, diru pixka bat ateratzeko. Horretan aritzen zen emakume bat aipatzen du.

16. Egurra eta ikatza, sutarako

- **Erref:** LEZ-088/020
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Beraiek ez zuten egur faltarik, aita arotza izanda. Ikatza erosi egiten zuten. Egurrak gehiago irauteko harri ikatza erabiltzen zuten. Ikatx saltzailea non zegoen aipatzen du; etxeak zuritzeko karea, lastoa... ere saltzen zituen. Papelerako langileei hilean ikatx zaku bat ematen zieten.

17. Kalez kale izotza saltzen

- **Erref:** LEZ-088/021
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:48:16. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Ikatza ez du gogoan, baina izotza bai, kalez kale saltzen zutela dio. Astoarekin eta gurdiaekin. Hozkailurik ez zen artean. Sifoneroa. Pasai Donibanen zegoen izotz lantegia. "Nebera" eta "freskera" nolakoak ziren azaltzen du. Sein izotz saltzaileari buruz hitz egiten du; haren semea gazte hil zen, lantegian istripua izanda.

18. Arrain saltzaileak kalez kale

- **Erref:** LEZ-088/023
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:51:45. **Bukatu:** 00:53:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Arrain saltzaileak Donibanetik eta San Pedrotik etortzen ziren. Alhondigan mahaia zituzten, bertan saltzeko, baina kalez kale ere ibiltzen ziren, otarrak buruan hartuta. Bakoitza bere platerarekin jaisten zen, erostera. Furgoneta batekin hasi zen lezoar bat, eta gero arrandegiak jarri zituzten. Lanperna beroak ere saltzen zituzten arrain saltzaileak.

19. Lezo, fruta askoko herria

- **Erref:** LEZ-088/024
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:53:31. **Bukatu:** 00:57:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Fruta asko zegoela dio, fruta arbolaz beteta zegoela Lezo. Gerezia, melokotoia, sagarra... Lapurtu ere egiten zuten fruta, umetan: kolkoa betetzen zuten. Baserri batean nahi beste jateko esaten zieten, baina ez frutarik eramateko.

Sagardoa egiten zuten baserritarrek, eta fruta saldu ere bai, herriko dendetara. Garaian garaikoa izaten zen dendetan, ez orain bezala. Orain urte guztian dago denetik, Txinatik eta Marokotik ekarrita, baijan ez dute lehengo zaporerik.

20. Lezoko alhondiga eta dendak

- **Erref:** LEZ-088/025
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lezon azokarik ez zegoen. Alhondigan harategia zegoen, eta arraina saltzeko mahai batzuk. Fruta saltzaile anbulantea ere ibiltzen zen, furgonetarekin. Dendetan denetik izaten zen: alpargatak, fruta, xaboia... generoa aldatu egiten zuten urte sasoiaren arabera.

21. Joxe "alpargaterua"

- **Erref:** LEZ-088/026
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:58:42. **Bukatu:** 01:00:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Maritxu taberna dagoen tokian, Donibane kalean, Joxe Intxaurrendieta "alpargaterua" zegoen, eta alpargatak egiten zituen, gehienak beltzak eta urdinak, jaietarako zuriak.

22. Ferratokirik ez Lezon

- **Erref:** LEZ-088/027
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:00:31. **Bukatu:** 01:01:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ferratokirik ez du ezagutu Lezon. Txerrimuño inguruan ote zegoen, baina berak ez du ezagutu. Lezon ehundik gora baserri zeuden. Orain gutxi gelditzen dira.

23. Ganadu erakusketa

- **Erref:** LEZ-088/028
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:01:19. **Bukatu:** 01:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Urtean behin ganadu erakusketa egiten dute Lezon. Bera izan zen antolatzaileetako bat: duela 40 urte hasi ziren. Hasieran baserri bakoitzak buru bat jartzen zuen, 30 osatu arte. Ondoren bigarrena ekartzeko aukera eman zuten, eta zozketa egiten zuten. Gaur egun bost baserri izango dira eramaten dituztenak, 30 osatu arte.</p>

24. Lezo, baserritarren herria

- **Erref:** LEZ-088/029
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:03:27. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Ganadu erakusketa zergatik antolatu zuten azaltzen du. Lezo baserritarren herria da, Donibane arrantzaleena den bezala, eta, horregatik, Ixkulin sortu zenean, baserritarrekin lotutako ekintzak antolatzen hasi ziren: idi demak, ganadu feria... ahari-jokoarekin ere hasi ziren, baina kendu egin zuten.</p>

25. Baserritarren egunean, bertsolariak

- **Erref:** LEZ-088/030
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 01:06:05. **Bukatu:** 01:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Baserritarren egunean bertsolariak ere izaten ziren eguerdian, eta berak jartzen zituen gaiak. Uztapide, Lopategi, Arozamena, Xalbador, Mattin... garai batekoak aipatzen ditu, eta baita ondorengo batzuk ere: Andoni Egañtza, Sebastian Lizaso, Peñagarikano... Barre egiteko gaiak ipintzen saiatzen zen. Gerora bertso eskolak hartu zuen ardura hori.</p>

26. Lezoko erraldoien historia

- **Erref:** LEZ-088/031
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Lezon ez zen erraldoirik, eta Pasaiaetik eramaten zituzten noiz edo noiz: erregea eta erregina. Elkarteak sortu zutenean, erraldoi pareak eginarazi zituzten: baserritarrak. Zaragozatik ekarri zituzten, Santa Kutz bezperan, 1975ean. Orain berriak daude, erosoagoak. Berak eraman du erraldoietako bat urte askoan, 43 urtean hain zuzen.</p>

27. Lezoko erraldoein historia II

- **Erref:** LEZ-088/032
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:14:05. **Bukatu:** 01:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Oraingo erraldoiak erabiltzeko errazagoak dira lehengoak baino. Burua lotuta geratzen zitzairen, eta 35 kilotik gora pisatzen zuten. Eroriz gero, ezin zen barrutik ateratzerik.

28. Lezoko erraldoien historia III

- **Erref:** LEZ-088/033
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:15:28. **Bukatu:** 01:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Urtean bitan ateratzen ziren lehen erraldoiak; behin pazkuetan istilua izan zuten alkatearekin, eta elkarteek boikota egin zuten jaietan. Txistulariak kanpotik ekarri zituzten, eta erraldoi moduan zinegotzi bat eta beste bat atera ziren. Erraldoietako bat erori egin zen.

29. Ibizako "playa nudistara"

- **Erref:** LEZ-089/002
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:00:01. **Bukatu:** 00:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ibizira iritsi eta zer topatuko: "playa nudista!!" hura izan zen hura, hemen bikiniak ikusi ere egiten ez zenean.

30. Bikinia, emakumeen galtzak...pixkanaka

- **Erref:** LEZ-089/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:05:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Denak gizonetakoak ziren bere etxean, baina emakumeak galtzak janzten berandu hasi ziren.

31. Eskolan gutxi eta harakin lanetara azkar

- **Erref:** LEZ-089/004
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:05:19. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Hiltegian lan asko egiten zuten, eta han denbora asko pasatzen zuen piezak jasotzen, baita harategian ere. Grosen, San Martinen, Bretxan... leku askotan lan egin zuten.

32. Bodegón Alejandroko otorduak

- **Erref:** LEZ-089/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Nagusia Martin Berasategiren aitaren oso laguna zen. Jatetxean egiten zituen otorduak. Han ezagutu zituen Baserri bertsolaria eta Urtain boxealaria besteak beste.

33. Donostiara trolebusean

- **Erref:** LEZ-089/006
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:10:16. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Kableak "pin, pan, pun" egiten zutela ibiltzen zen trolebusa.</p>

34. Harakin ofizioa nola hasi zuen ez daki

- **Erref:** LEZ-089/007
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Harakin izatera kasualitatez iritsi zen. Beste edozer gauzetan hasi zitekeen berdin berdin.

35. Ikasketak akademia batean eta Jesuitetan

- **Erref:** LEZ-089/008
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:13:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Anaia ta biak Jesuitetan ibili ziren 3 urtez. Beretzat traumatikoa izan zen.

36. Harakinaren lan gogorra

- **Erref:** LEZ-089/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:13:57. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

30 pieza astero hiltzen ziren hiltegian, eta bizikletan remolkearekin ibiltzen zen haiek hartuta.

37. Zaldi gibela erosteko ilarak

- **Erref:** LEZ-089/010
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Egun gibela bota egiten da, eta garai batean, erdi gordinik jatea onena zela zioten. Arkumearen giltzurdinak adibidez, orain berak bakarrik jaten ditu.

38. Behar handiko garaietan, katua asko jaten zen

- **Erref:** LEZ-089/011
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:24:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Jaizkibeleko destakamendura joandakoak ezagutu zituen, laranja azalak ere jateko prest, bera katua jandakoa da eta untxia bezalakoa dela dio.

39. Kastillo sukaldariaren aitarekin anekdota

- **Erref:** LEZ-089/012
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:24:16. **Bukatu:** 00:27:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak

Laburpena:

Gipuzkoako elkarten errezetak biltzen ibiltzen zen Juan Joxe Castilloren aita, Joxe. Berak arkume errearena eman zion. "Pottorruak saltsan" errezeta ere famatua zen.

40. Soldadutzatik bueltan negozio asko eta desberdinak

- **Erref:** LEZ-089/013
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:31:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Harategia eduki zuen Lezon eta saldu egin zuen. Gero beste lokal bat erosi eta jatetxea jarri zuen: "Uztarri" izenekoa. Hori ere saldu, eta beste bat erosi.

41. Beti saltsetan

- **Erref:** LEZ-089/014
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:32:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Umetan bihurria bai, baina gaiztoa ez.

42. Astoa koadrilan jateko erosi zutenekoa

- **Erref:** LEZ-089/015
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:32:59. **Bukatu:** 00:35:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Astoak erreka pasa nahi ez eta, bat aurretik tiraka, beste bi atzetik bultzaka, kotxean sartzea lortu zuten arte. Gero asto jana ospatu zuten. Ikaragarri gozoa.

43. Zaldia erosi furgonetan sartu ta gero jan

- **Erref:** LEZ-089/016
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:35:38. **Bukatu:** 00:37:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Jendeak nahiago du astoa jan zaldia eta txekorra baino.

44. Astoa erosteko asmotan Santa Luzia feriara

- **Erref:** LEZ-089/017
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:37:44. **Bukatu:** 00:40:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Astoa erosteko asmotan abiatu ziren eta umea egiteko zegoen ahuntza erosi zuten. Bazkaldu zuten jatetxeko jabeak erosi nahi izan zien.

45. Soto guztietan zeuden Lezon abereak

- **Erref:** LEZ-089/018
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Kale nagusiko soto guztietan baziren abereak: txerria, astoa, behia eta txekorra... Gehienek ere baratza zuten. Asko aldatu da Lezo.

46. Denda asko zegoen, egun bi egongo dira.

- **Erref:** LEZ-089/019
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lezon, askoz ere jende gutxiago bizi zenean askoz ere denda gehiago zegoen. "Ultramarinos"ak ziren gehienak. Denek herrian erosten zuten. Orain jendea merkataritza gunetara joaten da. Lezo orain garestia da.

47. Tabernak lehen asko, eta oso berandura arte irekita

- **Erref:** LEZ-089/020
- **Iraupena:** 0:05:43. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:51:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Tabernak berandura arte egoten ziren irekita, aste egunetan ere. Hamaika aldiz joana da lanera gaupasa eginda. Zirkua, titiriteroak, trapezio eta guzti... aulkiak plazara jaitsi eta ikustera.

48. Zinea elizan

- **Erref:** LEZ-089/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:51:01. **Bukatu:** 00:52:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Hilabeteetan behin jartzen zieten zinea dotrinara joatean zirenean. Beti pelikula berdinak jartzen zizkieten. Erromatarren garaikoak eta horrelakoak.

49. Lezo: pilotari, musikari eta abeslarien sehaska

- **Erref:** LEZ-089/022
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:52:31. **Bukatu:** 00:56:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Festa guztietan pilota, kanta eta dantza. Elizako abesbatza bereziki ona zen. "Los Ruidos Raros" banda osatu zuen beste lagun batzuekin batera.

50. Kantatzen ibilitakoa da

- **Erref:** LEZ-089/023
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:56:09. **Bukatu:** 00:57:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

"Atzekote" izena jarri zioten kantuan ibiltzen ziren koadrilari "Otxotari". Lehiaketa batean parte hartzeko "Los Esdrújulos " izena aukeratu zuten. Eta irabazi egin zuten gainera.

51. Pregoilaria berri email

- **Erref:** LEZ-089/024
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:57:57. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Pregoilariak danborra jo eta pregoia irakurtzen zuen.

52. Lezon lehen ez zegoen elkarterik

- **Erref:** LEZ-089/027
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:03:33. **Bukatu:** 01:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Lezon dotrinako elkarteak bakarrik zegoela eta, 16 urterekin, beste batzuekin batera, elkarte bat sortu zuen. Denetik antolatzen zuten.</p>

53. Ixkulin elkarte gastronomikoa sortu zutenekoa

- **Erref:** LEZ-089/028
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:07:10. **Bukatu:** 01:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

<p>Lezon ez zegoen elkarte gastronomikorik. Allerru elkarteari itzalik egin

gabe, baiña 50 bazkide izango zituen beste elkarte bat sortu nahi izan zuten. Elkartea sortzerakoan, kuadrilla handiak baztertu egin zituzten, haiek beren kasa beste elkarte bat sortu zezaketelako. Elkartea sortu eta 100 bazkide izatera iritsi ziren. Ixkulin jarri zioten izena.</p>

54. Ixkulin eta Tiñelu elkarateak sortu zireneko kontuak

- **Erref:** LEZ-089/029
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:09:53. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarateak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

<p>Beraiek Ixkulin elkartea sortu zutenean, beste batzuek Tiñelu sortu zuten. Ixkulin elkaratean politika eta kirola kanpoan utzi zituzten; Tiñelun ezberdin jokatu zuten. Tiñelun hasieratik onartu ziren emakumeak bazkide gisa; euren elkaratean, ostera, emakumeek sarrera debekatuta zuten, gerora gauzak aldatu ziren arren. </p>

55. Emakumeak Ixkulin elkaratean: beti ala inoiz ez

- **Erref:** LEZ-089/030
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 01:11:00. **Bukatu:** 01:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarateak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Ixkulin elkaratean emakumeak onartzea nolako prozesua izan zen kontatzen du pasarte honetan.</p>

56. Ixkulin elkarateko lehenengo presidente

- **Erref:** LEZ-089/031
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:15:54. **Bukatu:** 01:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarateak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Ixkulin elkarateko lehenengo presidentea izan zen. Bi urte egin zituen lan horretan, elkartea sortzen zen bitartean. Denbora luzez izan zuten emakumeek elkaratean sartzeko debekua. Bera ez zegoen horrekin ados.</p>

57. Emakumeak tabernetan hasi zirenekoak

- **Erref:** LEZ-089/032
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:16:59. **Bukatu:** 01:20:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Berandu hasi ziren emakumeak tabernetara sartzen, bere gazte garaian pentsa ezina zena. "Penny Lane" diskoteka ireki zutenean Erreterian hasi ziren gauzak aldatzen.

58. Neskak etxera eta mutilak "Julin" elkartu

- **Erref:** LEZ-089/033
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:20:14. **Bukatu:** 01:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskak bederatziatarako joaten ziren etxera eta orduan koadrila elkartzen zen gintonikak hartzera.

59. Emakumeak galtzak jantzita

- **Erref:** LEZ-089/034
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:21:40. **Bukatu:** 01:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Galtzak berandu eta bikini beranduago hasi ziren jantzen emakumeak. Hondarrabiara Donostiara baino lehenago iritsi zen bikini.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com